

Hitz eratorriak Luzaideko hizkeran¹

PATXI SALABERRI ZARATIEGI*

PEIO KAMINO KAMINONDO**

0. SARRERA

Dialektologoak euskalkien sailkapen berriak egiten ari diren garai honetan irudi luke hemen aurkezten dugun lan honen moduko bilketa xumeak karrikaratzeak ez duela funtsik; egileok, halere, datuak argitaratzea erabaki dugu, aipatu sailkapen horiei kalterik egingen ez dietelakoan. Txosten hau bururaino irakurtzen duenak aukera izanen du hona legez Nafarroa Garaikoa den Luzaideko euskara zoragarriaren atalño bat dakargula ikusteko, hain zuzen ere atzizki eta bukaerei dagokiena, kausitu ditugun aurrizki bakanei muzin egin ez badiegu ere.

Luzaide legez Nafarroa Garaian dela egia da, baina egia da, orobat, bertako hizkera zeharo Garazi aldekoa dela, egun galbidean den aspirazioak eta zenbait gune eta unetan ibiltzen den xukako erregistro alokutiboak erakusten dutenez. Donibane aldeko euskararekin lotzen duten beste hamaika ezaugarri ere baditu Luzaideko hizkerak, baina, erran bezala, hemen atzizki eta bukaerak biltzera mugatuko gara. Honela mintzo zen Francoren garaian orain hamarkada batzuk Luzaiden apez egon zen J. M^a Satrustegi Arruazuko euskaltzaina (1967: 11-12):

«Etxean luzaidar; español eta dena “torero”, botigetan (‘dendetan’); Donibaneko plazara orduko garaztar. Etxean jan eta Frantzian lan. Erreka aundiko xoriak bezala oihan zabala dute luzaidarrak maite eta, traba guti nahi bidean. Europa aldera idekitako leio zabala du Luzaide Nafarroak»

* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

** Luzaideko euskaltzalea.

¹ Lan xume hau Euskal Herriko Unibertsitateko Koldo Zuazo irakasleak zuzentzen duen *Euskal Dialektologia* izeneko ikerketa proiektu zabalagoaren zati da (UPV 033.130-HA085/99).

Luzaideko euskara Garazikoa bada ere ez du, zorionez, mugaz honandikoei hain arrotz zaigun frantsesaren [R] ubularea, Iparraldekoen mintzoan aditu ohi dena; alegia, luzaidarrak euskaraz ari direlarik ez dira «geka» mintzatzen, bertan erraten den bezala.

1. AITZINDARIAK

Ez gara gu, jakina, Luzaideko hizkeraz arduratzen garen lehenak, ez eta seguruenera, espero dezagun, azkenak ere. XIX. mendean Bonapartek hasi zuen (1881), beste kasu anitzetan bezala, mugako herri honetako euskararen bilketa. Urte batzuk lehenago (1856) Salaberri Ibarrolakoak Luzaideko eremua gainditzen duen lana apailatua zuen: Nafarroa Behereko eleak biltzen dituen hiztegia, hain zuzen ere Bonaparte printzeari eskainitako bertsoak (“Sei berxu heskuaraz hundiak prinze Luis L. Bonaparte-ren ohoretan...”) bere baitan dituena. Lan honetan Luzaiden oraino ere ibiltzen diren hitz anitz biltzen dira, eta, gainera, hiztegi osagarri bat ere badu, «*contenant les mots que nous appelons affixes, lesquels, ajoutés a d’autres mots, en modifient les significations*».

Garai hartakoak dira Nicolas Polit Luzaideko apez auriztarraren erlijio testuak (Satrustegi, 1987: 273-285), Luzaideko arotzaren kontuak (Satrustegi, 1969 eta 1970) eta Gaiñdolako Bordelea etxean sortutako *Bordel* «pertsularia»-ren kantuak, Satrustegik orain dela urte batzuk bildu zituenak (1965). Batez beste pixka bat beranduagokoak dira ikertzaile berak 1967an argitaratu eman zituen *Luzaideko Kantiak*, balio handikoak Garaziko herriko euskara aztertu nahi duenarendako.

Ezin aipatu gabe utzi, jakina, Luzaideko idazle gehien ageri zaigun Enrique Zubiri «Manezaundi» pintorearen egunkarietako artikuluko xamur-goxoak, oharkabean irakurtzen direnak, tarteka euskal gramatikarekin hagitz ontsa arrainatzen ez diren akasño batzuk izanik ere. Lantxo horietako batzuk Aingeru Irigarai argitaratu zituen (1958), aita zuen Larrekoren lan zenbaitekin batean, eta horiek berak eta beste batzuk Rosa Miren Pagola irakasleak (1990). Bada, gainera, luzaidar idazlearen euskara aztertzen duen artikuluren bat (Antoñana, 1995), irudi duenez lan zabalago baten hastapena dena.

Alabaina, ez da hain ezaguna den Manezaundi XX. mendeko Luzaideko idazle bakarra, idazletzat idazten duena ulertzen badugu, nahiz izkiriaturakoa «letrak», gutunak izan. Izan ere, Euskal Herriko beste anitz herritan bezala, luzaidarrek ere Ameriketara izan dute joera, eta berriki arte zeharo euskaldunak izanik, euskaraz idatzi behar handik hona eta hemendik hara, elkar ulertuko bazuten (ikus Satrustegi, 1971). Idatzizko harreman hauen ondorio dira oraino argia ikusi ez duten hainbat eskutitz, gehien-gehienak arrunt euskara herrikoi eta goxoan izkiriaturik daudenak.

Nolanahi ere, herritik alde egiten zuenak ez zuen hain urruti joan behar postazko harremanak izateko, orain gutxi arteko adineko jendea ez baitzen sobera usatua telefonoarekin, duela zenbait urte mekanika hau bazterretxeetan aski bakana izanez. Konparazione, Anastasia Bartzelona (AB hemendik aitzina) Bidarteko etxeokandrea zaharrak eta bere «kusia» (lehengusina) zen Dolores Etxeberría J. M^a Satrustegi apezaren gelariak –garai batean Azkue-ren informatzaile lana egin zuenak– euskaraz idazten zioten elkarri, Luzaideko xuka xamurrean (erregistroen erabileraren inguruan ikus Alberdi, 1996:

340, 342, 345, 355, 403, 404-405). Doloresen letrak ez ditugu ezagutzen, zorrigaitzez, baina Bidarteko etxeoandre zenarenak arrunt euskara jatorrean izkiriaturik daude, eta ez da dudarik karrikatuak izatea merezi dutela.

Hauetaz landara, Satrustegik 1981ean argitara emandako artikulua dugu, beste luzaidar batzuen letrak biltzen dituena. Luzaideko egungo hizkeraren lekukotasunak ikertzaile beraren 1999ko artikuluan ere badaude, eta, testuetara joan nahi izanez gero, arruazuarraren 1997ko laneko Luzaideko eta Lesakako izkribu parekatuak ikus daitezke. Salaberri (2000) ere mintzo da Luzaideko euskararen inguruan, Mezkirizko hizkerarekin eta Aezkoa ibarrekoarekin alderatuz.

Grabaketei dagokienez, Euskalerrria Irratiak eta M. Muxikak argitara emandako lanean (1990) bada aztergai hartu dugun herriko grabaketa bat, eta, berriki (1999), Euskaltzaindiak Luzaideko hizkeraren lekukotasuna ere biltzen duen liburua eta bost CD-rom karrikatu ditu.

2. ATZIZKI, BUKAERA ETA AURRIZKIAK

Jarraian aipatzen ditugunak dira Luzaideko euskaran kausitu ditugun atzizkiak eta hitz eratorriak; denak ez daude hemen bilduak, jakina, baina bai, ustez, garrantzizkoenak. Diratekeen hutsunez kestione, lankide batek maiz ahotan hartzen duen esatera gure eginez “zer edo zer utzi beharko diagu, ba, geroko!” erran dezakegu geroko ere.

Lekukotasunak:

2.1. -alde

- a) ‘Ingurua’, ‘hurbilekoa’: atsálde, sukálde.
- b) ‘Ugaritasuna’
 - Belárralde: *Zé belárraldja in dún gúk áurten!*
 - Ihíztarjálde: *Zé ihíztarjaldja bildu zén Luzáiden jwándén úrrjan!*
 - Sosálde: *Sosálde háundia metátu giníxin.*
 - Jèndéalde: *Ze jèndéaldja bildu zén bázko egúnjan bolánten ikústeko!*

2.2. -aldi (‘denbora’)

- a) *Ukaldi* hitzean aurkitzen dugu, batuan *-kada* atzizkiak duen balioarekin:
 - Ukáldi ‘kolpea’: *Álimáleko ukáldja emántzakón makílajkilán.*
 - Aitzúrrukáldi ‘aitzurrarekin ematen den kolpea’.
 - Arrèstelukáldi ‘arrastelukada’: *Emántzakón arrèstelukáldi bát izigárrja!* = *izigárrriko arrèstelukáldja emántzakón.*
 - Bùrukáldi ‘burukada’: *Bùrukáldi bát emán dakó samúrtu délakotz.*
 - Eskwínukáldi ‘eskuinkada’ (pilotan eta).
 - Ezkèrrukáldi ‘ezkerkada’ (pilotan eta).
 - Èskukáldi: «èskukáldi bát emán» ‘lagundu’: *Èskukáldi bát emá(n)nakón laúntzekò.* Cf. frantseseko «donner un coup de main».
 - Hàizeukáldi ‘haize kolpea’.
 - Hàrrjukáldi ‘harrikada’.
 - Ìnarrosáldi ‘astindua, astinaldia’. *Ìnarrosáldi bát ederra emán zjako-xón náusjak mutlaj.*
 - Makílukáldi ‘makilkada’.
 - Xìxpaukáldi ‘sardekada’...

Satrustegik, gainera, «aizkorukaldi» biltzen du (1963-64: 280).

- b) Beste oinarri batzuekin ere agertzen da:
- Aipaaldi. AB-k darabil, behin: «Izan gintxun Alemanian atsalde batez eta Berdunen, hamalauko gerlan zenbait aipaaldi emana» (AB-12).
 - Àkiáldi ‘nekealdia’: *Àkiáldi edérra hártu íxju belárretan.*
 - Àte[r]áldi: *Zé àteáldja izán dín hórrek!* Cf.: «Letra hau leitzen hasten xielaik estonatuko xira ene atera aldi haundiaz» (AB-11). Hemen ‘bidaia’ edo da.
 - Ègonáldi.
 - Hárroáldi: *Gáitzeko hárroáldja emán dakóu iljai.*
 - Mintzáldi.
 - Pasáldi ‘pasada’: *Zé pasáldja hártutén belár hók béro hunékin!*
 - Paúsáldi: *Baúxu bá pàúsáldi hún batén behárra!*
 - Tòrroskáldi ‘masajea’ («tòrroskátu» ‘igurtzi’).

2.3. -antxa. Euskara batuko –antza bera da, bistan denez.

Arribántxa ‘iristea’, aídántxa (ikus «aídégwa»), àiskidántxa ‘adiskidetasuna’, èspe(r)ántxa ‘itxaropena’ (*èspeántxetan izán, egón* ‘haurdun egon’), kònfiántxa, làborántxa ‘nekazalga’. AB-k «amistantxa» darabil behin (AB-138).

2.4. -antza. Aurrekoaren baliokidea da, hitz bakan zenbaitetan.

Àixkidántza, bakántzak ‘oporrak’ (frantseseko «vacance(s)» hitzetik, irudi duenez): *háurrak Egwérritakò bakántzen béa djáudexù.*

2.5. -ar, -tar, -tiar, -liar, -lier

a) ‘Jatorria’

Áldudár (AB-k «aldudiar» darabil), àrneitár, àrriztár, àzoletár, bàigorrrjár, bankár, bàztandár, dònjandár ‘Donibanekoa’, gàindolár ‘Gaiñdolakoa’, gànikoltár ‘Gainekoletakoa’, gàraztár, hèrritár ‘herrikidea’, hìritár, ìrunddár ‘Iruñekoa’, kàrrikatár (‘Karrikan ibiltzea gustatzen zaiona’ edo ‘Karrikakoa dena’), lasár, lùzaidár mèzkiiztár, nàfartár, òrrjatár ‘Orreagakoa’ (cf. «orriaco bi aizur» eta «orriaco ostatian», Luzaideko arotzaren kontuetan; Satrustegi, 1969: 146 eta 177), pèkotxetár ‘Pekotxetakoa’, ùndarlár ‘Ondarrolakoa’, wartjár ‘Uharte Garazikoa’, xùberatár ‘zuberotarra’ (cf. «suberatarrac», Luzaideko arotzaren kontuetan; Satrustegi, 1969: 167)...

Etxe izenekin ere usaiakoa da:

- Bidòndotár ‘Bidòndwa etxekoa’. *Karríkan ikúsi níxin mutikwát éta lemízjan eníxin záutzen, bána géro ohártu níntxun bidòndotárta zatékela.*
- Mãnótár ‘Mãnóinja edo Mãnóinja etxekoa’. *Mãnóinjan erósi béhi batí mãnótárta erráiten ginjákoxon.*
- Mòxotár ‘Moxóinja etxekoa’...

b) -tiar (edo –tier) aldaera hitz hauetan agertzen da:

- Áfaltjár – áfaltjér, bàzkaltjár – bàzkaltjér, ètxatjár - ètxetjár ‘maizterra’, gojztjár (*landátu íxju lusár gojztjárta*), kanpotjér - kanpotjár ‘kanpotarra’. Cf.: «Biziki besta ederra; jende gaitza zuxun meza nausian. Kanpotiar anitze bazuxun» (AB-17).

c) -liar (-lier) aldaera, berriz, beste hitz hauetan kausitzen dugu:

Ègoiljár - ègoiljér ('turista' edo: *Luzáiden údan ánitx ègoiljér izáiten dí-ra*), èntzuljér 'entzulea', èzteiljár (*éne kúsjaín eztéjetan ehún báno géjo ezteiljár bazúxun*), kusljér 'ikuslea'.

d) Euskalkia, hizkera: *Gizón hóri mintzoúk bàztandárrez; hórxek aítúk xù-beratárrez*.

2.6. -ari, -kari

a) Gaia, objektua (ikus Azkue 1969 [1923-33]: 102-103, 105, 228-229 eta Villasante 1974: 90-91): afári, askári 'gosaria', atsálaskári 'merendua', bazkári, edári, janári...

b) Izen abstraktua ere adieraz dezake, «nahikári» 'gogoá' hitzean, konparazione (cf. «Aldi huntan baztertu dela, gure nahikariek eztutela balio», AB-26).

c) Denbora aditzondoa: igàndekári (*nóla jínzizté igàndekári?*), egwèrrikári (*egwèrrikári jwáingirá étxeat*), úrtebèrrikári...

2.7. -ari, -kari, -lari, -tari

a) 'Egilea'

Àntzindári 'burua, buruzagia', àrraintzári, beilári (1.-'erromesa'; 2.-'gorpua laguntzen gelditzen dena'. Satrustegik [1963-64: 261] «beilari» dakar lehenerako eta «beillari» bigarreneko; guk ez dugu horrelako bereizketarik atzeman), ddantzári, dendári 'jostuna', èlakári - èlekári 'hiztuna, berriketaria', èskelári 'eskalea' (cf. txori baten izena den *éuri-eskáilja*), gelári 'apezaren andre laguntzailea' ('gela' errateko, ordea, «ganbára» ibiltzen da Luzaiden), gidári, ihiztári, jàuzikári 'jauzi egiten duena', jòkolári 'kartetan edo beste edozein jokatotan dirua jokatzen duena', kantári, làborári, làsterkári 'laster egiten duena', (bokáta)latsári 'bokata edo lixiba errekan egiten duena', pèrsulári 'bertsolaria', pilotári, prèdikári, xekári ('zerbaiten xerka edo bila jiten edo joaten dena': *Bihar góizjan góizik jinen dúxu ahátxjaín xekárja* 'bihar goizean goiz etorriko da aratxearen, zekorraren bilatzailea'), xèrbixári («xèrbixátu» da aditza), zòkokári (*zòkotan ibiltzja gustátzen zakóna; etxú sobéra gáuza húna*). Ikus 2.6. puntua.

Satrustegik, gainera, «marrakakari» 'miauka, ñarraukaka ari izaten den katua' biltzen du (1963-64: 273).

b) Zaletasuna

Màztekári 'gonazalea' (ikus «gizònketári» sarrera), mèndikári 'mendizalea'.

2.8. -ario, -kario

Orain biziki guti ibiltzen den «hilárjo» 'ehorzketa' hitzean eta aise arruntagoa den «bozkárjo»-n ageri da. Elkanoko Lizarragak «ilaria» ibiltzen zuen (*JMESB*, 153), eta Esteribarko Iragin «ilárje» oraino bizirik da. Badaiteke «afári», «askári» 'gosaria', «bazkári», «edári», «janári»... hitzetan azaltzen den atzizki bera izatea. Cf. hau: «Atzo izan ninduxun otoitzen iten eta gero Margaritain mezan ninduxun; atsaldeko bost eta erditan zuxun hilarioa, jende haundia ('jende anitz'). Sortziak hiltzia zor; badiaxu frango Luzaidene, denbora puskat huntan (sic). Hau denek zor» (AB-83). «Bozkario» dela-eta cf. beste hau: «Bidon[do]ko Fran[t]ziskare bozkario haundiain bea dioxu» (AB-8).

2.9. -aro

Hitz beregaina ere baden honek atzizki lanak egin ditzake; zerbaitetarako denbora egokia adierazten du: belaro («Egun denborat ederra ixiu; biziki denbora freskuak ari tixi hemen, eta belaro guti: hamabi egun in tixi mutu eta euri», AB-10), uso aro (cf. «Orai iratzian ari txu gizonak; denbora freskua arixi biziki. Etxu uso aro; bate etxie hiltzen onokuan», AB-116. Kasu honetan hitz elkartu baten aitzinean ere egon gaitezke).

2.10. -as ('jantzirik gabe')

- Atórras 'atorra hutsik': *Hólako hótzaikin tá zú atórras?*
- Bésoàs 'mauka hutsik': *Elúrra gohótik ári tá mutiko hóri bésoàs.*
- Búruàs 'txapelik edo buruko jantzirik gabe': *Elízan búruàs sártzen dá jéndja.* Satrustegik (1963-64: 262) «buruats» 'a pelo' biltzen du.
- «Hásasà áteà, jwán» 'arropa gutirekin joan': *Etxétik áteà núxu hásasà, béro délakotz.* Cf., gainera, «lárruaséko» 'kamiseta' (orain «kamiséta» gehiago ibiltzen da).

2.11. -asun, -tasun (izen abstraktuak sortzen ditu)

Aberàstasún, argítasún, arrarotasun (AB-41), atentzìone gabetasun (AB-117) (normalean «àtentzjòne fálda» erraten da), azkàrtasún, bakàrtasún, batasun (AB-20), edèrtasún, erítasún, èskwaldùntasún, garbítasún, gizòntasún, gohòrtasún, haundítasún, hòztasún, hùntasún 'ontasuna', ilùntasún, itsùstasún, itsùtasún, ixiltasún, lodítasún, trebètasún, uròstasún, xahàrtasún 'zaharria', xehètasún...

2.12. -dade: ùmidáde 'hezetasuna' (eta «úmi» 'hezea'). Berria dateke; ikus -tate.

2.13. des- 'gabetasuna', 'kontrakotasuna' (ikus ez-): desbárdin (baina «bérdin»), desín - deséjn 'desegin', desóre 'desohore'.

2.14. -di (toki-ugaritasunezkoa)

Azkuek (1969 [1923-1933]: 29) «derivado toponímico» deitzen dio atzizki honi, eta Villasantek (1974: 66-67), hari jarraikiz antza, «toponimiko hutsa» dela dio. Luzaiden egia da toponimiatik kanpo gutxitan aurkitzen dugula, baina *haizti* 'hariztia' hitz normala da, eta beste herri anitzetan horrelako eratorriak eguneroko hizkera arruntean ere ardurakoak dira, toponimian ez ezik, maiz *-di*-k beste atzizkiren batekilako nahasketa izan badu ere (honetaz ikus Salaberri, 1991 eta 1998). Besteak beste *Gàztajínádja* eta *Saukádi* toponimoak ditugu Luzaiden.

2.15. -dun ('duena, jabegoa, egilea')

Bìzardún, doludun («Ikusten nixin arrotz bat doludunetan, eta jes!, enixin ezagutzen. Gero oroitu ninduxun senarra zenak bazila sematxi bat Frantzian. Eta ura zuxun!», Satrustegi, 1961: 225), eràkustún 'erakusten, irakasten duena', èrdaldún, èrostún 'eroslea', èskwaldún, èsnadún ('esne anitz ematen duen azienda': *Béhi esnadúna erósi dú gúk*); hòbendún 'hobena, errua duena';

‘erruduna’, lunètadún ‘betaurrekoduna’, mùstaxdún ‘biboteduna’, sosdún ‘diruduna’, zordún ‘zorra duena’.

Satrustegik (1963-64: 283) «zizpadun» ‘burdinazko muturra duen maki-la’ jasotzen du.

2.16. -dura, -kura, -tura (izenak sortzeko erabiltzen da)

- Àkidúra ‘nekea’: *Àkidúra hunékin enúxu xútik egóiten ál.*
- Bilkúra: *Bihár baúxu bilkúra, bolántegúnain prestátzekò.*
- Èlkordúra ‘gorreria’ (behin baizik ez dugu aditu).
- Ìlundúra. Eguraldiarekin erabiltzen da, goibel dagoenean eta: *Zé ìlundúra zén egún hártan; géro àlimáleko ortzántzak ín zítxin.*
- Ìzjaldúra. Erdarazko ‘susto’-ren baliokidea da: *Gáitzeko ìzjaldúra emán daáxu!* Luzaiden gauza bera adierazteko *harrjázja* ere erraten da; Izetak (1996) *izialdure* eta *arrialdure* biltzen ditu Baztanen.
- Lotúra (‘sendaketa’ edo; ‘cura’ erdaraz): *Mín hártu níxin béswan tá medíkjak íntzjáxun lotúrat, lótu zjáxun.*
- Zòladúra ‘zola’: *Gúre etxéko zòladúra xahárta dá tá behárdú arrañátu* ‘gure etxeko zola zaharra da eta konpondu behar dugu’.
- Zùrtadúra (‘gorputz handia’ edo: *Jántzaxù, ján. Xúre zùrtadúraíndakò zédít beháxu!* Behin bakarrik aditu dugu).

Satrustegik (1963-64: 265) «ertsura» ‘herstura’ biltzen du.

2.17. -egi, -tegi (‘tokia’)

Àpeztéi (AB-k «apezetxea» ere ibiltzen du), àrditéi, bèhitéi, ègurtéi, gàs-natéi (Luzaideko arotzaren kontu liburuan «Busunsa taulac seïain gasnateico» dugu, alegia, ‘makal oholak Xehiaren –Xehjájinja etxearen– gaztategirako’; Satrustegi, 1969: 176), ìrindéi ‘irina atxikitzen zuten ganbara, gela’, jan-téi ‘aziendei belarra emateko tokia, bordetan egoten dena’, kòmitatéi ‘komuna’, lùsartéi ‘patata biltegia’.

Òllatéi, prèsondéi, sàsutéi ‘sasidia’, ùngarritéi, ùntzitéi (*azíten atxikitzekò paétan zártzen dén mwéblja, xurrútajn gáijnjan ezténa*), xàmindéi ‘tximinia’ (Luzaideko arotzak «samideyain arrinazen», «samindeico burdina bat» du; Satrustegi, 1969: 162, 206), zèrritéi («serriteico bortaco lana parazeco», *ibid.*, 199)... «Àrdandéja» etxe izena ere bada Luzaiden; *téi* ‘zerritegia’ hitz beregaintzat erabiltzen da.

Satrustegik «urdandei» ‘zerritegia’ ere biltzen du (1963-64: 277, 280); Luzaideko arotzaren kontu liburuan «suteico icazaorrosain arriñazen» eta «escolateico labaa (sic) gatinaiquin berria» ere baditugu (Satrustegi, 1969: 188, 193).

2.18. -eria (ikus -keria)

a) ‘Multzoa’: gatzérja ‘gazteria’, gizonérja ‘gizon pila’, zibalérja (*zé zibalérja dén hémen!; chaval-etik?; hots, chavaléria-tik?*). Luzaideko arotzaren kontu liburuan «zureria» ageri da (Satrustegi, 1969: 236).

b) ‘Eritasuna, akatsa’: èlkorérja ‘gorreria’ (?), gòhorrérja ‘idorreria’, main-gérja ‘ardiek hanketan (apatxetan) zenbait aldiz izaten duten eritasuna’, zà-harrérja, zìrinérja ‘zìrin-kakeria’, tìrritérja ‘zìrin-kakeria’ («tìrritérje» Erratzun).

c) Aurreko bien batuketa: gìrgillérja ‘bitxi merkeen multzoa’.

2.19. -es, -(e)sa

Izen arruntekin ibil daiteke: alkáte / alkatésa; bòtigés ‘dendaria (gizona)’ / bòtigésa ‘dendaria (emaztekoa)’; errínt ‘errieta, maisua’ / erríntsa ‘errietsa, maistra’; gwárdja / gwardjésa.

Maiztasun handikoa da oikonimoekin, etxe bakoitzeko «etxèkandérja» izendatzeko:

- Àltzonénja (etxea): altzón (etxeke jauna) / àltzonésa (etxekeoandrea).
- Atxwáinja (etxea): átxwa (etxeke jauna) / atxwésa (etxekeoandrea).
- Bàrtzelóna (etxea): bàrtzelóna (etxeke jauna) / bàrtzelonésa (etxekeoandrea).
- Bidóndwa (etxea): bidóndo (etxeke jauna) / bidondósas (etxekeoandrea).
- Bordélja (etxea): bordél (etxeke jauna) / bòrdelésa (etxekeoandrea).
- Èdarréta (etxea): èdarrét (etxeke jauna) / edàrretésa (etxekeoandrea).
- Kàrrikabúrja (etxea): kàrrikabúru (etxeke jauna) / kàrrikaburúsa (etxekeoandrea). XIX. mendean, Luzaideko arotzaren kontu liburuan, «carricaburusac» ageri da (Satrustegi, 1969: 179), ergatiboan.
- Màestriájainja (etxea): maéstru (etxeke jauna) / màestrúsa (etxekeoandrea).
- Pellóinja (etxea): pellóinja (etxeke jauna, ez “pello”) / pellósa (etxekeoandrea).
- Tolóxa (etxea): tolóxa (etxeke jauna) / tòloxésa (etxekeoandrea).
- Ûrtxelénja (etxea): urtxél (etxeke jauna) / ùrtxelésa (etxekeoandrea).
- Xàindjájainja (etxea): xáindu (etxeke jauna) / xàindúsas (etxekeoandrea).
- Xapitelénja: xàpitél (etxeke jauna) / xapitelésas (etxekeoandrea)...

2.20. -eta, -keta

a) ‘Aritzea, jarduera’: jostéta (*háurrak jostétan ái txú; hóri jostéta pollíta úxu*), pèntsakéta, xintxukéta (*xintxukétan aizán*, ‘zurezko edozein tresnaren egite edo konpontzea’), xwikéta (*xwikétak ín* ‘bokata, lixua egin’).

b) ‘Bila (ibili, joan, jin...)’. Ikus **-ketari** atzizki konposatua.

- Bèlarkéta: *Jwánginén bèlarkéta péntzeat*. Luzaideko arotzaren liburuan «belarqueta nausi gaztea egun bat», «belarqueta e(gun) bat» ditugu (Satrustegi, 1969: 194, 196).
- Belar[t]zamaketa («nik enixin ikusten, bana erraiten [t]zixien goizetan goizik jeiki eta beti arditat. Gero, belar pikatzen belar[t]zamaketa, sasoinian gaztaina erauzten... Zertako hoinbestetano?, eta orai denak utzi eta juaiten!», AB-54).
- Ègurkéta: *Ojánian ibíliginén ègurkéta*.
- Harriketa. Luzaideko arotzaren kontu liburuan «arriqueta» ageri da (Satrustegi, 1969: 156, 197).
- Iàtzekéta: *Jwánginén méndira iatzekéta*. Luzaideko arotzaren kontu liburuan «irazequeta», «beiequin (i)razequeta egun bat», «irazequetan egunac 1» ageri dira, besteak beste (Satrustegi, 1969: 146, 148, 165, 181).
- Ilketa. Ez dakigu ongi Satrustegik biltzen duen «ilketa» ‘gorpua hilerria eramatea’ (1963-64: 268) hemen sartu beharra den. Baliteke, pentsatzen bada hilarrietara eraman aitzinetik jendea hilaren xerka joaten dela.

- Oholketa. Luzaideko arotzaren liburuan «amar asto oolqueta», «lau peon oolqueta» ageri dira (Satrustegi, 1969: 163).
 - Pitralketa. Luzaideko arotzaren liburuan «pitralqueta», «pitralquetan» ditugu, alegia, ‘zurezko zutabe bila joatea’ edo (Satrustegi, 1969: 183, 250).
 - Tablonketa, taulonketa. Aipatu liburuan «tablonqueta egun bat» eta «taulonquetan egun bat» ditugu (Satrustegi, 1969: 183, 185, 250). Cf. «oholketa».
 - Ùngarrikéta: *İbili gitik eün gúzjan ùngarrikéta*. Luzaideko arotzaren «ungarriqueta» dago (Satrustegi, 1969: 196).
 - Urkéta: *Jwán(n)intzán túrrira urkéta*.
 - Zurketa. Luzaideko arotzaren kontu liburuan «zu(r)quetan cantero erdi bat ano» dago, hots, ‘zurketan pegar erdi bat ardo’ (Satrustegi, 1969: 238. Ikus, orobat, 269. orrialdea).
- c) ‘Garaia’: urrítá (eta «larrazkén»). Cf.: «Sasoina orai in dixi ederra frangore; ze urrita xarmanta!», AB-9).
- d) ‘Toki-ugaritasuna’: Àmeikéta ‘Amerikak’, ilarrítá ‘hilerria’. Toponimian ugaria da, jakina: Àzoléta, Gànikólta, Lézta, Pèkotxéta...

2.21. ez- (ikus des-)

Èzazóla ‘axolagabea’, ezdeús - eztéús (‘inútil’: *Ezdéús aláina!*; *ezdeusa aláin ezdeusa!*), ezúntsa(z) (‘ondozik, ezongi’; *Ezúntsa(z) zón Kattín átzo*; cf. «Heke egon diela ezuntsaz gaitzeko marranta eta gripa[ikin], haurrake biziki eri; orai denak untsa diela», AB-6).

2.22. -gabe (‘gabezia’)

Ahàlgegábe ‘lotsagabea’, axòlagábe (baina «axola» ez da erabiltzen; cf. «èzazóla»), garrík gabea («Arrazoin haundia uxu, beti erraiten ari gitxu eta beti hitzemaiten eta sekulan ez eremaiten. Jende eternal garrík gabekuak!», AB-5), nahigábe, pàregábe (*áno pàregábja úxu Iruléjkwa*), potrètagábe (‘moldegaitza’: *Mutíko hóri arrúnt potrètagábja úxu; lán gúzjak èrrebéski íten txí*), ùstegábe (*aixxíde harén híltzja ustegábe háundja izán dúxu enétako*).

2.23. -gai (‘gaia, izan behar duena’)

Àhakái ‘haragitako ardia’ (Satrustegik [1963-64: 257] «arakai» eta «aakai» biltzen ditu), àndraái ‘prima’ («premu»-ren femeninoa. Luzaideko arotzaren liburuan «totain andregayac» ‘Tottain andregaia, prima’ dugu; Satrustegi, 1969: 259), àpezgái, azkái ‘sei bat hilabetetako zerria’, gízongái, mārrogái ‘marrotako uzten den axuria’, màztegái, sugái ‘erregaia, egurra eskuarki’. AB-k «senargai» darabil, eta Luzaideko arotzaren kontu liburuan (Satrustegi, 1969: 143, 144) «icazgayac», «icazgaia» ditugu.

2.24. -gailu (‘gaia, objektua’)

- Bèrdagáilu: *Sáldatén prestátzen ài xjélaik emáiten zazkón gáuza hórjek, kòmparazjòne tipúla, bàatxúrja, pórrja... hórjek txú bèrdagáiljak*.
- Unkáilu: *Oligwan bàatxúri bát zárri, fritátu tá gáinetik botátzen zakóna, sáldai*.

- Zòkobètégáilu ‘deusetako ez den gauza bat’: *Zértako úk trésna háu etxjan zòkobètégáilu?*; *etxít zòkobètégáilu náhi libúru hók.*

2.25. -garri

- a) ‘Zerbait sortzen, eragiten duena’

Ahàlgingárrí ‘ahalkegarria’, àkigárrí ‘nekegarria’, àltxagárrí ‘legamia, orantza’, àsegárrí ‘nekegarria, gogaikarria’, desòragárrí, hàrrigárrí ‘estonagarria’, ìrringárrí, ìzigárrí (mailakatzaillea da, ‘oso’ edo: *izigárrí húna, izigárrí pollíta...*), lòrjagárrí (eguraldiarekin ibiltzen da anitz: *egún denbóra lòrjagárrja dó*), lòtsagárrí (‘beldurgarria’. Cf. hau: «Egun hotan ari gitxu azkar belarrian; orai artio hotzak egon gitxu eta orai lotsagarriko beruak zenbait egun huntan», AB-96), nigàrringárrí, okàztagárrí (‘nazkagarria’: *Zé denbóra okàztagárrja, bėti éurja!*), pèningárrí ‘penagarria’, ungárrí ‘ongarria’, xòragárrí...

Satrustegik «ondagarri» ‘ruinoso’, «tresondagarri» ‘desohoragarria’ eta «zartagarri» ‘zeharo barreagarria’ (1963-64: 275, 279, 282) biltzen ditu.

- b) Izen moduan erabilia: *òsagárrí* ‘osasuna’.

2.26. -gi (‘tokia’; inoiz **-ki** da). Beste leku batzuetako *-gio*, *-go*, *-gu*-ren kidea da. Ikus Azkue (1969 [1923-33]: 100-101).

Barrúki ‘trasteak sartzeko gela’, berógi (‘toki beroa’. Cf.: «Hemen bauxu haurretan epidemia hori; anitz haur bauxu eritasun hunekin eta berogia behar», AB-15), etzángi ‘etzauntza’, hedági ‘arropa hedatzeko tokia’ (erdarazko ‘tendedero’), sárgi ‘sartzea, sarrera’.

2.27. -gile (‘egiten duena’)

Bestíle ‘parrandazalea’, langíle. Satrustegik (1963-64: 259, 278) gauean asotsa egiten duen «azantzile» edo «tarrataile» izeneko izaki mitologikoaren izena jasotzen du.

2.28. -gin (‘egilea, joera’)

Gàixtagín ‘gaizkilea’ (Satrustegik [1963-64: 266] «gaistagina» eta «gaistakina» biltzen ditu), hargín, ikazkín, jòstagín ‘jostalaria’, zàpatáin, zurgín. Luzaideko arotzaren liburuan «marizapataina» eta «yulanainco zurgina» ditugu (Satrustegi, 1969: 178, 229).

2.29. -gintza (< -gin + -tza. ‘Lanbidea’ adierazten du; ikus «-tza»)

Hargíntza, zurgíntza.

2.30. -go

- a) ‘Izen abstraktua’

Aídégo ‘ahaidetasuna’, jelósko ‘jeloskeria, bekaizkeria’ («jelósa» ‘jeloskorra, bekaiztia’ da), samúrgo (‘haserre’: *Samúr núxu* ‘haserre nago’ xuka; «samúrto» ‘haserretu’).

- b) ‘Lanbidea’

Artzáingo, apéngo, ahózko ‘arozgoa’, xofégo ‘txofertza’. «Sòldadógo» ‘soldaduska’ a-n nahiz b-n sailka daiteke.

- c) ‘Ekintza’

Ebásko ‘lapurreta, ohointza’.

2.31. -ide ('kidea')

Àdiskíde - àixkíde, ahíde 'ahaide', aurríde (AB-k beti «abride»).

2.32. -ione (eta -ion, inoiz)

Adòrazjone, àtentzjone, benèdizjone, dipùtajone, èmozjone, èrrepàrazjone («arràñamèndu» gehiago ibiltzen da), èskursjone, èstazjone, fèlizitazjone, funtzjone, ixkjone 'letra, idazkera' (cf.: «Barkatu ene ixkione makurraz; orai buruko mina jina ixit», AB-5), ilusjone, indizjone, ìnpresjone.

Kestjone (instrumentala eskatzen du eta '-ela eta'-ren balioa du. Cf.: «Ba, hemene izan zituxun eta erran ziaxien nola ideia bazuten zien etxea jiteko, paperren itiaz kestione, noizko plantatuko zinezten» AB-14, eta beste hauek: «Beraz, hemengo berriez kestione, biziki urte txarraren planta da», «Adiskide Batista: badakizu zer solas pasatu dugun ene bortan zure lau aberez kestione», Satrustegi, 1971: 297, 301).

Kòmifione 'jaunartzea'. AB-k «kominione» erabili ohi du, eta inoiz «kominione» ere bai; kòndizjone, kònpazjone (1.- 'konparazioa', 2.- 'adibidez'), kòmisióne ('mandatua'; *banjáxu karríkat kòmisiónen iteà* 'banoaxu kalera mandatuak [erosketak...] egitera'), konfirmazjone, misjone, nazjone, obligazjone, òkasjone, okùpazjone, pentsjone, pègrinazjone (edo «béila»), pèrmissjone (eta «baimén» ere bai), pròzesjone (eta «béila»), rògazjone, satisfazjone (AB-k «satisfazione» ibiltzen du), sepàrazjone, telèbisjone, tentsjone (*medikjak tentsjónja hártu zjåkoxon*), unjone...

Baina: abjón (AB-k behin gutxienez «abionia» darabil, AB-123, baina «abiona» ere bai), kamjón.

2.33. -izun. Àmajún 'amaordea'.

2.34. -ka

a) Txikigarria: behóka; pittíka 'antxumea' (txikigarria ote hemen?).

b) 'Errepikapena' (inoiz inesiboan ibiltzen da, -kan forman alegia):

Abríztukà («Abríztukà aizán»: *Zakurrer édo árdjer édo edózejn ànimáler iten dén xixtja, ezpáinak biribíldu gábe iten déna, zombáit aldiz érijak sártuz*). Azkuek hiztegian «arriztu» dakar; «abríztu», «abríztu ín» ere erraten da Luzaiden.

Ahápekà ('ahapetik': *ahápekà ái dá = ahápetik ái dá*), aldíka 'noizbehinka, tarteka', aldízka 'txandaka', aóspeskà («aóspeskà egón»: *Háurra aóspeskà ló djóxo*), arrósikà («arrósikà aizán» 'aho zabalka ari izan'), artéka-martéka 'tarteka', aúsíkkà 'hozkaka', aztáparkà (*aztáparkà ái zjåxu gátu zikín háu!*), bèderázka 'banaka', bidázka – birázka, hirunázka, launázka, mílakà....

Búltakà 'aldika, tarteka', eláka - eléka (*maztéki hórjek gústu-gústjan ái txú eláka elgárrekilán*), eráúsikà 'zaunkaka' (Satrustegik [1963-64: 267] «haunka» 'zaunka' biltzen du; guk ez dugu horrelakorik jasotzerik izan), erdízka (*lán hóri eztúxu finítu; erdízka útzi úxu*. Luzaideko arotzaren kontu liburuan «errezibitia icazquia erdízka» dugu; Satrustegi, 1969: 251), erréstakà 'arrastaka' («erréstan» ere ibiltzen da), erránka (*zernáí erránka ái dúk!*), eskáinka ('eskainiz' edo), eztúlka («eztúlka aizán»), garráxjakà, géka (*donjándarrák géka míntzo díra eskwáraz; lehéngo zahárrak ez, bána oráiko gáztjak, dénak*), góiti bótakà (*góiti bótakà aizánatúk sobéra edátjatík*), harríka (*harríka igórri gin-*

tján hérritik), házka («házka aizán»: *Béhja arbóla hórrí kóntra házka ái dúxu*), ihórtzirikà 'ortzanzka, ostoska', (írri)karkáilakà ('barre algaraka': (*Írri*)*karkáilakà ái zjén*), irríntzinakà, itxalóska («itxalóska aizán» 'ihalozka, iraulka ari izan': *Gúre ástwa itxalóska ái dúxu kórljan*), itzilipurdikà (*eróri zúxun itzilipurdikà béiti*), jáuzikà (*jáuzikà dáí ltza*), jáuzimózka (haur josteta da; Satrustegiren arabera [1963-64: 268] 'bi oinak aldi berean mugituz jauzika aurrera joatea' da. Axuriak jauzika ari direlarik ere «jáuzimózka» ari direla erraten da), jóka (*jóka aí zának gitúk* 'joka ari izanak gaituk').

Kalkárikà 'borborka', kaskárikà 'hotzez dardarka', karráska (ortzantzaren, ostotsaren onomatopeia, partikulazki azkarra denean: *Zé karráska ín dín!*; cf. «Ze denbora terribliak! Ze euriak eta ihortziri karraska itsusiak eta zimiztak», AB-54. «Karráskan aizán» ere erraten da, norbait lanean jo eta ke ari dela adierazteko: *Zé, karráskan ái ziztea?*), katzáka («katzákan aizán», «katzákan ibíli», «katzáka ibíli» 'borrokan bezala aritu, elaka, eztabaidan': *Katzákan ibíli zineztén hán; zé katzáka ibíli utén étxe hórtan!*), kiríkakà 'sartu-ateraka, ezkutuka', kitzíkan («kitzikan aizán» 'zirika ari izan': *Kontino kitzíkan ái zjáxu déurru zikín háu!*), kokorázkakà (*gúre óllwak kokorázkakà ái txú*; Satrustegik [1963-64: 271] «kokorazka» 'cacareando' biltzen du), kólpekà, kukúka 'altxapeka, ezkutuka', kùkurrúkukà, kurrínkakà, kúska («kúska ibíli» 'zerbait ikusten ibíli': *Ásto zikín hóri ikúska ibíltzen dúxu étxe ingúru hótan!*).

Lastérka (*lastérka átea ginén karríkat*), marrákkà (*árdjak marrákkà ái txú bórdan bázkai n gáldez*), marráskà (marráska 'haurrak negarrez ari delarik egiten duen soinua' da), marrúmakà (marrúma 'katuak ohara delarik egiten duen soinua' da), mehátxukà, mokóka (*mokóka ái txú bí mutíko hórrjek*. «Mòkokátu» ere erraten da), noizténka 'noizik behinka', ñiki-ñáka 'kitzikan, katzakan ari izan'.

Ojúka, ortzánzka 'ihurtzurika, ostoska', órrwakà (*béhjak órrwakà ái txú bórdá bárrjan*), ostíkokà, pásokà ('ukabilka'; *bíziki mozkórtu óndwan pásokà hási zitján* 'arras mozkortu ondoan ukabilka hasi zituan'), pindárka, prísakà, púnpakà ('itzulipurdika'; *izígarríko mozkórra bíldu zín éta errekanò jwántzén púnpakà*), sahéska ('alde batera'; *kadéran járrík zólai k sahéska eróri zúxun*), sanjáka 'aldatuz', tarrápatakà 'azkarregi', 'modu txarrean' (erdarazko «aprisa y corriendo»; *hóla ibíltzen dénai erráiten zjácoxò «tárrapát» édo «ttárrapát»*).

Ufáka ('puzka'; *Añés sújai ufáka ái dúxu*), ukáldikà ('kolpeka'; «hàrriukáldika», «makilukáldika»... Ikus gorago), urtzínzka (*urtzínzka aizán* 'atijaka, doministikuka ari izan'), urúbjakà (*zakúrra hási uxú urúbjakà*), uzkérka (*ilárrak ján duzté tá orái tíralà uzkérka ái dirá*), zimíztakà (*zimíztakà aizán; zimíztakà ái díxi, fite éurja*), zipírtakà ('pindarka' edo; Satrustegik [1963-64: 282] 'reverberante' dela dio), zirúrikàn ('zitzu bizian', *áire míla demónjo jwántzúxun, zirúrikàn*), zotínka (*zotínkajínúk* 'zotinka ari nauk'). AB-k (126) «telefonaka mintzatu» 'telefonoz mntzatu' («teléfonatik mintzátu» eskuarki Luzaiden) darabil; zurrúpítakà (*zurrúpítakà ái dú éurja* 'euria goian-behean ari du, arrunt gogor').

Satrustegik, gainera, «arrazoinzarka» 'modu txarrean, mutirikiro' (1963-64: 258), «azkamilka» 'pisu handiko gauzak erabiliz', «aztalka» 'pataleo' (ibid., 260), «daldarika» 'dardarka' (ibid., 263, 270), «karrakaka» 'etzarria garbitzeko egiten den ezkul modukoa', «kirkirika» 'prurito' (ibid., 270), «kulinka» 'erixko, ukitua' (ibid., 271), «tirtirika» 'lana beranduagorako utziz joatea' (ibid., 278), «tiliki-ttalaka» 'fundamentu gutxiko gizona' (ibid., 279) jasotzen ditu.

2.35. -kara ('antza')

Ilúnkarà (*denbóra háu ilúnkarà djók*), zalúkarà ('frángo zálu'; *mutíko hú-ra zalúkarà jwántzúxun*).

2.36. -katu (< ka + -tu. Aditzak sortzen ditu, aldi berean errepikapena adieraziz, azkeneko erranahi hau kasu guztietan garbi ageri ez bada ere. Ikus Villasante, 1974: 91-92)

Abàrrikátu 'desegin, txikitu', àldizkátu 'txandakatu', àxikátu 'zakurra xa-xatu', bèsarkátu, brokátu 'emokatu, bete-betea egon'; dùrdurikátu 'zalantzan egon', 'erabakia ezin hartuz egon'; èlekátu (1.- 'berriketan ari izan'; 2.- 'norbaitekin mintzatu'), èmokátu ('bete-betea egon': *arbóla sagárrez èmokátja úxu*. Satrustegik [1963-64: 264, 268] «emokatu» eta «imokatu» biltzen ditu eta 'lohiz zeharo zikindu', 'erabat zikindu' adiera ematen. Ikus «fùndikátu»), errèpikátu, fùndikátu 'lohiz zeharo zikindu', hàtsankátu 'hatsanditu', hazkátu (*búrjaj̃n hazkátzen áj̃ núxu meméntu híntan*), itxàloskátu 'ihalozkatu, iraulkatu', itzulikátu (AB-k, 92, darabil: «Ikusten dixit xure letran lana fran-go itzulikatzen duxula eta bestalde hoinbeste bisiten errezibitzen»).

Jankatu (hau AB-k darabil, behin, 45. gutunean. Ez dakigu Luzaiden ibiltzen den ala ez; eskuarki «xaflátu» erraten da: «Barrian txie ezteiak. Ehun eta lauetan hogoi launena manatia omen dixie. Ze jankiak ditun hok! Denak jankatzen txie hok!»), laukátu 'tiraka ibiltzeko bigarren behi para ezarri'; màrruskátu 'eskuekin zukua atera', 'eskuekin gogor estutu'; mòkokátu (*erríntsak bortízki mòkokátu ixi mutíkwa*), tòrroskátu 'igurtzi'.

Satrustegik, gainera, «xeakatu» 'txiki-txiki egin' (1963-64: 281) eta «ziru-rikatu» 'gai baten gainean behin eta berriz ari izan' (ibid., 283) biltzen ditu.

2.37. -keria (-a berezkoa da: *gàixtakérjat* 'gaiztakeria bat'. Izen abstraktuak sortzeko erabiltzen da, baina betiere izenari adiera txarra gehituz)

Àferkérja (sic), àlukérja, àstokérja, àstapìtokérja, èrgelkérja, èrokérja, gàix-takérja, ìrringàrrikérja, ìtsuskérja, men(t)skérja 'zozokeria' (*zé men(t)skérja errán duzjén!*), nahaskérja 'nahaspila, istilua', pìtokérja, ùrdekérja, urgùlukérja, zèrrikérja, zìkinkérja, zòzokérja... Ikus -eria.

2.38. -ketari (< -keta + -ari) 'bila etorri, ibili': èsneketári 'esnea eroatera etortzen dena', gizònketári 'gizon bila ibiltzen dena' (cf. «màztekári»), zèrriketári 'zerriak eroatera etortzen dena'.

2.39. -ki

a) 'Modua'

Amableki (AB-k darabil, behin), aùsárki ('anitz', 'ugari': *Badját aùsárki, eztját géjo náhi; irázi dik aùsárki* 'asko irabazi dik'), azkárki ('larriki'; *azkárki kolpátuxú azidéntéatjan*), bizíki - bíziki ('oso, arras'; *mutíko háu bíziki pollíta úk*), bortízki (*anájak bortízki ibili zján Jwanés; erríntsak bortízki mòkokátu ixi mutíkwa*), edérki (cf. «Apezetxiare finitia ixie; orai garbitzeko. Biziki ederki gelditu dela erran dixie», AB-20), èlegánki 'dotoreki' («èlegánt» da oinarria), eméki-eméki 'pixkanaka-pixkanaka', èrrebéski (*mutíko hóri arrínt potrèta-*

gábja úxu; lán gúzjak èrrebéski iten txi), èrrepóski 'mantso', esprésuki (*esprésuki jín núk híre kústeà*), eztíki.

Gájzki (baina «úntsa»), garbíki, goxóki (*egón ginén goxóki ostátu hártan* 'gustura' edo), hobéki, itsúski, jústoki, klárki ('argiki'; *míntza xíte klárki*), labúrki, lárriki (*óstjan áj zixin langárta frángo lárriki*), màluróski 'zoritxarrez', oneski (AB-k darabil), ohíki (< ohit(u) + -ki²) 'faltarik gabe' («sinfált» ere erraten da), pollíki, pollíki-pollíki, pollíkixoño 'pollikixegoño', potrètagábe-ki 'desitxuragabeki', 'trakeski'; saĩndukí.

Séurki (≠ hàĩntséur ≠ séurik), séurkitalé (< seurki ta halare?; 'baiki' edo da, erdarazko 'ciertamente, desde luego' edo), uróski, xarmánki (*jwándèn egúnjan proménatu ginén xarmánki*), xuxénki, xehéki 'zehazki'.

Zenbaitetan instrumentala darama aurretik (cf. idazle klasiko zenbaiten «laburzki»): egjázki (*egjázki bajézt!*), haundízki («Eskerrak haundizki emaiten dauzkitxut, guretako dituxun atenzione guziez», AB-13), komúzki (gutxi ibiltzen da; «normálki» erran ohi da: *Komúzki atsáldeko zortzítan jiten dúxu*. Satrustegik [1963-63: 267] «gomuzki» biltzen du), pàrtikulázki 'bereziki' (*frújta gustátzen zják ánitx, pàrtikulázki ahána*).

b) 'Zatia'

Àatxéki 'zekorkia', àhatéki, ardíki, arráĩnki (edo «peskádwa»), artéki 'hirugiharra', axúrkí 'bildoskia', erórgi 'senipartea', erráki, iháurgí 'inaurkina', lapínki, màteláki 'zerriaren mazelatik ateratzen den artekiaren antzekoa', olláki, olláskoki (erabiltzen da, baina normalagoa da «olláskwa»), tripáki ('ardien tripekin egiten zen salda'), zerríki...

Luzaidetako arotzaren kontu liburuan «errezibitia icazquia erdizca» dugu (Satrustegi, 1969: 251); arotz horrek berak «icazgaia» erabiltzen du beste batzuetan (ikus *-gai* atzizkiari eskaini atalñoa). Nafar euskaltzainak hestebete baten izena den «buruki» biltzen du (1963-64: 263); guk ez dugu hitz hori jasotzerik izan.

c) 'Zaletasuna' edo

Jankia. AB-k darabil, behin, eta dakigunez ez da usaiakoa; normalena «jálja» da. Baliteke beste zerbaiten desitxuraketa izatea: «Barrian txie ezteiak. Ehun eta lauetan hogoi launena manatia omen dixie. Ze jankiak ditun hok! Denak jankatzen txie hok!» (AB-45).

d) 'Tresna, objektua'

Estálgi 'estalkia'

e) Zehaztugabea

Maztéki 'emaztekoa, emakumea'.

2.40. **-kila** (atzizki txikigarri mespretxuzkoa): Hàundiskíla, jàũnskíla.

2.41. **-kin**

a) 'Zatia': bàzterkín (*xingár xáflaték áldeatetik axála ik ta bestétik bàzterkína, errézteko kéntzentzakóna*), sòberakín ('soberan dagoena'. Cf.: «Gaixua! Untsa pena eman diaxu haren etxetik juaitia (sic), iduriz hura dula soberakina» 'Gaixoa! Pena handia eman dit hura etxetik joateak, irudiz bera dugula soberan', AB-157), xwíkin 'artoa zuritzen denean gelditzen den hosto ihartua'.

b) 'Zaletasuna': làũnkín 'lagunkoia, lagunzalea'.

² Bernat Etxeparekoak *orhit izan* darabil: «Nor da gizon modorroa harzaz orhit eztena / eta gero halakoa gaitz erraiten duiena?». Ikus Etxepare (1980: 129).

2.42. -ko

- a) Txikigarria: mutíko, oháko 'sehaska'.
 b) 'Kolpea': bèharróndokò 'zafla', ostíko, zàbletáko 'zafla'.
 c) 'Tresna' (kasu honetan, aurrekoan bezala, leku genitiboaren hondarkia ikusi beharko dugu): kòpetáko 'idiei kopetan paratzen zaiena', mùturréko 'muturretakoa, zerriei eta paratzen zaiena'.

2.43. -koi ('joera')

Berkóji 'berecoia'.

2.44. -kor, -tor ('joera' eta inoiz 'zaletasuna' ere bai)

Ahàlgetór 'lotsatia', àhazkór, háuskór, ihiztór (*zakúr ihiztórra* 'ehiza txakurra'), ìzikór, kànbjakór 'aldakorra', kilikór 'kilikabera', pixkór, sèntikór 'sentibera', lèrrakór 'irristakorra', sànjakór 'aldakorra', ùmekór 'umezalea' (*árdi umekórra*), zikinkór ('aise zikintzen den arropa edo': *Xúrja kolóre zikinkórra úxu*).

2.45. -kuntza ('ekintza')

Hizkúntzak 'erráiteko manérek, esamoldeak', hizkúntzazár 'jùraméntja, sákrja'.

2.46. -le, tzale ('egilea')

Àndeatzále 'lardaskatzailea', arràñatzále 'konpontzailea', bèlarpáile 'belar ebakitzalea, segalaria', búrumùntatzále 'kitzikatzailea', èbastále (= ohóina), edále, errúle, emáile, éuri-eskáile (txori bat), galtzále, gàrbitzále, hartzále, háustále, hiltzále, íle 'egilea', iraztále 'irabazlea', ixkjazále 'idazten duena', jále, jóile, langíle (cf. «languiliac peon», Satrustegi, 1969: 176), miatzále, moxtále 'árdi-moxtálja', pìpatzále 'erretzailea', prèstazále, sàlbatzále, saltzále, sèndatzále, xèhatzále 'txikitzailea', xwitzále 'garbitzailea', zaiñtzále, zànpatzále, zuañtzale (AB-k erabiltzen du) - zòinatzále 'zaintzailea'...

Luzaideko arotzaren kontu liburuan «escalapineilia» ('«èskalapínak» edo eskalapoia egiten dituen»), «escalapain eiliac zorra» dugu, eta «beti eulian condia» ('Betti ehulearen kontua'), Satrustegi (1969: 177, 178, 245). Nafar euskaltzainak (1963-64: 267) «jasaile» («Alakuen egile bano obe da jasaile *se dice en casos de injusticia manifesta*») eta «salatzale» (ibid., 277) ere biltzen ditu. Guk ezin izan ditugu hauek jaso, baina badirudi, izatekotz ere, azkenearen kasuan «salatzale» izan behar genukeela.

2.47 -men, -pen, -mendu, -mentu

- a) 'Ekintza'

Agradezimendu (AB-2), àitzinaménu (*aitzinaménu gáitza in dixju hérrjan hundárreko úrte húntan*), arràñaménu 'konponketa', atxikiménu («hortaik ageri uxu jendek atxikimendu haundia badauzietela», AB-15), baimén (eta «pèrmisjóna» ere bai), bàrkaménu, bèherapén, ènterraménu (edo 'hilárjoa', hau biziki guti orain), gòrapén, hàsberapén 'hasperena', hàstapén 'hastea', hìgiménu, irùdipén (*irùdipéna íxit enganátu nutéla*), kònpliménu-kùnpliménu, kòntsolaménu, lùzamén 'luzamendua', mànaménu, mòhiménu, pèntsaménu, sòfriménu, tràtaménu...

b) 'Gaitasuna' edo. Helménjan izán 'irispidean izan' (*ganíta helménjan díxit; kásu maxì*).

- c) 'Neurria' edo. Hamén 'mokadua, ahamena'.

2.48. **-na** (kontsonante ondoan), **-ra** (bokal ondoan); banatzailea da.

Bána (*sagár bána; emán gúri kulléranà; kátxu pilotanà*), bedéra (*bedéra sagár; bedéra kulléra; bedéra pilóta*), bíra (Luzaideko arotzaren kontu liburuan «bi aldiz bira gaizuru» dago, Satrustegi, 1969: 172), hirúna, láuna, bósna, séira, zazpíra («za(z)pira sos», *ibid.*, 201), zortzóra («zorzira sos», *ibid.*, 193), beátzirà («lau zaqu ogui bederazira» ‘lau zaku gari bederatzina franko’, *ibid.*, 241), hamárna, hamékarà, hamábirà, hogóira, ehúna, bedéra míla...

2.49. **-ño**

Nahi adina adibide ekar daitezke hona, izan ere hau baita Luzaiden normalean ibiltzen den atzizki txikigarria. Bada honen femeninoa irudi duen *-ña* bat, baina bakarrik «astáña» hitzean (ikus Azkue, 1969 [1923-1933]: 23).

Àlabáño, amáño ‘inudea’, ariño, aríntxoño, báño (...hamárño), bàzkaríño, begíño, berríño («etxe berríño», AB-109), bortáño, bultáño, burúño, egúnño, etxéño, gejóxoño, háurnño, hobékixoño ‘hobekixeagoño’, ixtáño ‘istant, une llaburra’, jáunño, jáunttoño, Juanaño (AB-55), lehéntxoño, maháño, maztéño, mikóño ‘pittin bat’, mùtikóño, paréño, pollíkinoño, pollíkinoño ‘pollikixeagoño’, puxkáño, puxíño ‘pittin bat’, seméño, sóño (*sónwát índakót* ‘so, begirada txiki bat egin diot’), sudúrño, xoríño, untzíño...

2.50. **-os** (izenondoak egiteko erabiltzen da)

Kòmodós ‘erosoa’, lànjerós ‘arriskugarria’, màlurós, nerbjós, sàtisfós (‘satisfecho’), serjós, urós.

2.51. **-ro** (aditzondoak egiteko erabiltzen da)

Kasu bakarrean ibiltzen da atzizki hau, «goxáro» hitzean, hain zuzen ere: *goxáro edán nezaké báswat áno*.

2.52. **-ska, -xka** (txikigarria)

Bidéxka, elaska (AB-k darabil, behin: «Ageriko uxu falta, ba, Toloxan, haren elaska», 91), eríska (*ériáire ibíltzja; eríska ibíli úxu ardúra*), etxéxka, eurríska ‘langarraren eta euriaren artekoa’, langárxka ‘langar xehea, larria ez dena’, herríxka, itzúlíxka (‘bueltatxoa’: *Beháixit itzúlíxkát ín hérrjan gáñdi*), mendíxka, untzíxka.

2.53. **-sko, -xko** (txikigarria)

Fiersko (‘harroxko’ edo hurrengo lekukotasun honetan: «Fiersko zira, ba, aitatxiturik! Eta bietan ohono, sematxia baizinin!», Satrustegi, 1961: 225), goxókíxkò (‘goxaro’; *báswat áno hártu íxit goxókíxkò*), haundíxko, sòberásko - sòberáxko (*Egún sòberáxko edán dúxu; bárda sòberáxko afáldu nján*), ttipísiko - ttipíxko (*áuto hóri enétako ttipíxkwa úxu*), untsásko ‘ongixko’, húnsko ‘onskoa’...

2.54. **-sta** (txikigarria, irudi duenez. Behin bakarrik opatu dugu)

Sarista (AB-k darabil, behin: «San Jose egunian ze lanak ibili txun, hainbeste haurren xokolaten xerbitzatzen; untsa mexitia uxu sarista hun bat», AB-15).

2.55. **-tate, -date** (izen abstraktuetan aurkitzen dugu)

Bòrondáte, jákitáte (*jákitáte háundikò gizóna úk hóri*), kàswalítáte...

2.56. -tatu (< tatu / < taratu. Aditzak egiteko erabiltzen da)

Bùutátu 'bururatu', deitatu (AB-55), elgárretátu (gehiago «juntátu»), ès-kustátu 'éskjekin hunkítu', gòdotátu 'bururatu', hortátu – hòrtaátu 'horretaratu', ìhiztátu 'ur gutxirekin ureztatu', òkaztátu 'nazkatu', òrraxtátu 'orraztu', hurtátu 'ureztatu', hùreztátu 'ureztatu', xikitátu - zìkitátu 'zikiratu'.

Zenbait aldiz –tatu bukaera –taratu-ren laburtzea bada ere, kasu guztietan hau ez da horrela. Konparazione, orraztatu, orrastatu, orra(i)xtatu Iruñerrian eta inguruetan ere ibiltzen zen (ikus Bonapartek bildutako materialak, Ondarra, 1982: 159 eta Anozko grabaketaren transkripzioa, Artola, 1985: 103), aipatu laburtzea burutzen ez zen alderdian. Era berean, Satrustegik biltzen dituen «bixkotxastatu» 'goxokiz bete' (1963-64: 262), «ezeztatu» 'kikildu, atzera egin' (ibid., 265) aditzetan –tatu hutsa ikusi beharko dugu, ez –taratu-ren laburtzapena. Ikertzaile honek biltzen duen «iruzkitatu» 'solearse'-n (ibid., 269) bata zein bestea izan genezake.

2.57. -te ('denbora, garaia')

Áste, háste 'hastapena'³, idórte, úrte. 'Otordua' adierazten duten izenekin ere ibiltzen da, leku kasu batean, beste toki batzuetako -tze-dun formen ordainetan: afájtèa 'afaltzera', afájtèan, afájtetik, afájtekò (*zér dú afájtekò gáur?* 'zer dugu afaltzeko gaur gauean?'); askájtèkò, askájtèa, askájten, askájtekò; atsàlaskájtèkò, atsàlaskájtèa...; bazkájten, bazkájtèa, bazkájtetik («erraiten daxu bestak zinuztela, eta Iruñeko apetz kantariake bazkaiten hor zinuztela», AB-10).

2.58. -to (txikigarria)

Nexkátò 'neskatila' ≠ neskátò 'neskamea'. Cf. nekátto 'nexkátò ttípja'. Satrustegik «neskato» (1963-64: 274) 'eltzei eusteko ibiltzen den burdinazko tresna' dela dio; guk adiera honekin ez dugu kausitu.

2.59. -tra (< -tara) 'neurria'

Ahútra ('ahurtada'; *kárrak ahútrat ártopikór*), kamjóntra ('kamioikada': *Jwándén egúnjan jintzén kamjóntrat lásto*), kullératrà ('koilarakada': *Emázu kullératràt sálda béro*), orgátra ('gurdikada'; *kárriginín orgátrat belár*), palátra ('palakada'; *hartzák / hárrak palátrat aríña*), pòzalétra ('suiltada'; *kárrak pòzalétrat húr*), xixpátra ('sardekada'; *hárzkitzù bi xixpátra iátze*), zalítra ('zalikada'; *atéazkitzù híru zalítra ilár, kitojk bajtá*), untzíttra ('ontzikada'; *kárri zutén untzíttrat ésne*)...

2.60. -tsa (aditzondoa sortzen du)

Ez dakigu atzizkia den, hala irudi badu ere. Dakigunez, «úntsa» eta «ezúntsa(z) (egón, izán, ibíli, pástu)» 'ezongi egon'-en baizik ez da ageri: *me-ménto húntan úntsa gítxu bíziki*. Cf., gainera, hau: «Egonuxu bi ilaite pastuik ezuntsaz. Orai idurí ziaxu puskat hobekitzen ari nizala; bestiak denak untsa txu» (AB-4).

³ Hemen ekintza ere adierazten du.

2.61. -tsu

a) 'Gutxi gorabehera'

Berdínsu (*hórjek berdínsjak tük bják*), bértzu (*atzó errán zán gáuza bértsja errán djáxu óstjan* 'atzo erran zidan gauza berttua erran dit arestian', xuka), bezálatsù, lehéntsutik, núntsu (*bàzikját núntsu dén hérrì hórì*).

b) 'Ugaritasuna'

Jàkintsún (bukaerako *-n* hori dela-eta cf. *zentsuna*. Ikus *FHV*, 305). Satrustegik (1963-64: 276) «pozointsu» biltzen du, baina guk ez dugu horrelakorik jasotzerik izan (bai, ordea, «pozóin»).

2.62. -tto (txikigarria)

Jáuntto, nekátto 'nextato ttipia'.

2.63. -tu

Aditzak egiteko erabiltzen da; nahi bezainbeste lekukotasun bil daitezke: àitaxítu, àitzinátu, bèsarkátu, èsposátu, fàmiljátu 'familia egin, izan', gibelátu - gielátu - gjelátu, gojtítu, haundítu, hóztu, hòbekítu, karjótu, màrrantátu, pausátu, plastrátu (plástrja 'igeltsua'), pòllikítu 'polliki jarri, sendatu', pri-sátu 'lehiatu', telèfonátu, ttipítu, untsátu 'ongitu, ongi jarri'...

2.64. -tza

a) 'Ekintza'

Eskáintza, laúntza, ohíntza 'ohointza, ebasgoa' (baina «ohóina»), záutza (*záutza gáldu*; Anastasiak 'errokonozimendua' adieraz ibiltzen du). Satrustegik (1963-64: 263) «burutzarik ezin egin» 'ezin burutu, ezin gauza onik egin' biltzen du.

b) 'Lanbidea'

Hargíntza, zurgíntza (ikus *-gintza* atzizkia).

2.65. -tzapen (izena sortzeko)

Ohítzapén 'oroitzapena'.

2.66. -xe

a) 'Pittin bat'

Aríntxoño 'arinxeagoño', giélaxò 'gibelxeago', géixxoño 'gehixagoño', lehéntxoño 'lehentxeagoño', pollíkixxoño 'pollikixagoño'. Aditzari ere itsats dakioke 'ia-ia' adiera gehitzeko: «Orai idurixi Fernandoi juantxe zakola ('ia-ia joan zaiola') faringitis; iraun diakoxu bi ilaite seurik» (AB-91).

b) Indartzailea

Bezálaxè, hántxe, heméntxe, holáxe, hórtxe. Beste hizkera batzuetako «oraintxe» «orái bérjan» edo «wái bérjan» da Luzaiden.

2.67. -zain ('zaintzailea, jagolea')

Artzáin, ètxezáin 'etxetierra, maizterra, etxe zaintzailea', hàurtzáin, ihazáin 'errotazaina' (Luzaideko arotzaren kontu liburuan «Eiarazainain condia», «eierazainari iziac paratu»... ageri dira; Satrustegi, 1969: 192, 193, 214), itzáin, òjantzáin...

2.69. -zu ('ugaritasuna')

Kakázu, mukúzu. Satrustegik (1963-64: 283) «zoldazu» 'zikina', 'ezdeusa', dakar.

Nafar euskaltzainak, gainera, *-til* atzizki txikigarria dukeen «leiotill» ‘ate nagusiak duen leiho txikia’ biltzen du (1963-64: 272). Guk, ordea, ezin izan dugu horrelakorik jaso.

BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, J. (1996): *Euskararen tratamenduak: erabilera*, Iker-9, Euskaltzaindia, Bilbo.
- ANTOÑANA, M. (1995): “Enrique Zubiri «Manezaundi». Zenbait artikulua”, *FLV* 69, 1995, 337-361.
- ARTOLA, K. (1985): “Ezkabarteko euskara, Iruñeko udal dermioaren ondokoa, Celedonia Zenoz andrearen ahotan”, *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, 95-112.
- AZKUE, R. M. (1969 [1923-1933]): *Morfología Vasca*, hiru ale, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969.
- BONAPARTE, L. L. (1881): “Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos”, *Revista Euskeraz* IV, 161-166.
- ETXEPARE, B. (1980 [1545]): *Linguae vasconum primitiae (Edizio kritikoa)*, Patxi Altunak paratu argitalpena, Mensajero, Bilbo.
- EUSKALERRIA IRRATIA & MUXIKA, M. (1990): *Nafarroako Euskaldunen Mintzoak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA (1999): *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas. Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia*, Bilbo.
- IRIGARAI, A. (1958): *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca*, Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea.
- IZETA, M. (1996): *Baztango Hiztegia*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- LIZARRAGA, J. (1994): *Jesukristo, Maria eta Santuen Bizitzak (JMESB)*, J. Apeztekeak eta F. Ondarrak prestatu edizio kritikoa, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- MITXELENA, K. (1990 [1961]): *Fonética Histórica Vasca (FHV)*, «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegiaren Gehigarriak IV, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 4. argitalpena.
- ONDARRA, F. (1982): “Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi”, *FLV* 39, 133-228.
- SALABERRI, P. (1991): “Do.i atzizkiaren ondorengoak Nafarroan”, *FLV* 57, 1991, 33-53.
- (1998): “Arabako mugako nafar hizkeren inguruan”, *Nafarroako Hizkerak*, I. Camino arg., UEU, Bilbo, 49-87.
- (2000): “Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan”, inprimategian.
- SALABERRI IBARROLAKOA (1856): *Vocabulaire de mots basques bas-navarrais*, Baiona.
- SATRUSTEGI, J. M^a. (1963-64): «Vocabulario popular», *Euskera* VIII-IX, 255-283.
- (1965): *Bordel Bertularia*, Auspoa 45-46, Donostia.
- (1967): *Luzaideko Kantiak*, Auspoa 65, Donostia.
- (1969): “Libro de cuentas de un herrero de Valcarlos”, *FLV* 2, 1969, 133-286.
- (1970): “Notas al libro de cuentas de Valcarlos”, *FLV* 4, 1970, 95-133.
- (1971): “Correspondencia familiar vasca del siglo XIX”, *FLV* 9, 291-306.
- (1981): “Xukako aditz joskera Luzaideko mintzairan”, *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak*, Iker-1, Euskaltzaindia, 343-354.
- (1987): *Euskal Testu zaharrak 1*, Euskaltzaindia, Iruñea.
- (1997): “Lesaka eta Luzaideko euskal testu parekatuak”, *FLV* 74, 99-126.
- (1999): “Lamias y sirenas a través de la simbología”, *CEEN* 74, 497-520.
- VILLASANTE, L. (1974): *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Editorial Franciscana Aránzazu, Oñati.
- ZUBIRI, E. «Manezaundi» (1990): *Enrike Zubiri Manezaundi. Artikulu Bilduma*, R.M. Pagolak paratu argitalpena, Euskal Editoreen Elkarte & Eusko Jaurlaritza, Klasikoak 41, Bilbo.

LABURPENEA

Artikulu hau Luzaideko (Nafarroa) euskara biltzen eta aztertzen duen lan zabalago baten zati da. Oraingoan egileek mugako herri horretako hizkeran kausitu dituzten hitz eratorriak jasotzen dituzte, eta atzizkika (edo aurrizkika,

des- eta *ez-*en kasuetan) sailkatzen. Ahal izan denean, hitz eratorriaren adiera argiago ikus dadin, Luzaideko euskaran moldatu adibidea sartu da. J. M. Satrustegik herri horretako hiztegiaren gainean egin lanak ere aintzat hartu dira.

RESUMEN

El presente artículo es parte de un proyecto más amplio que tiene como objetivo la recogida y estudio del euskara de Luzaide (Valcarlos, Navarra). Aquí se hace una lista de las palabras derivadas que los autores han encontrado en el habla de la mencionada localidad, clasificándolas por sufijos (o prefijos, en el caso de *des-* y *ez-*). Cuando ha sido posible, se ha hecho acompañar la palabra derivada en cuestión de algún ejemplo del habla local, para de esta manera dejar más claro su significado. También se han tenido en cuenta los trabajos sobre el léxico de Luzaide realizados por J. M^a Satrustegi.

RÉSUMÉ

L'article ci-présent fait partie d'un projet plus large qui a pour objectif le recueil et étude de l'euskara de Luzaide (Valcarlos, Navarre). On fait ici une liste de mots dérivés que les auteurs ont trouvés dans le parlé de la localité mentionnée, en les classifiant par suffixes (ou préfixes, dans le cas de *des-* et *ez-*). Lorsque cela a été possible, on a accompagné le mot dérivé en question d'un exemple du parlé local, pour laisser ainsi sa signification plus claire. On a aussi tenu compte des travaux sur le lexique de Luzaide réalisés par J. M^a Satrustegi.

ABSTRACT

The present article forms part of a much larger project whose aim it is to gather and study Euskara from Luzaide (Valcarlos, Navarra). A list is presented of derived words the authors have found in the Euskara spoken in the town locality, classifying them by suffix (or prefix in the case of *des-* and *ez-*). Where possible, the derived word in question comes with an example of local speech in order to clarify its usage. The works of J. M^a Satrustegi on the Luzaide lexicon are also taken into account.